

DROGETEN

ITTURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria
2025eko APIRILA · 343 zenbakia

**Gorka Gonzalez,
Euskaraldia
koloreztatuz**



EKIN

Egoitz Corrales

Ermuarra. 21 urte.

Fabrikazio Mekanikoko
Produkzioaren Programazioa
Ikaslea



HEZIKETA ZIKLOAK Ikasleen bizipenak

Nor da Egoitz?

Ni Egoitz naiz eta 21 urte ditut. Fabrikazio mekanikoko produkzioaren programazioa ikasten ari naiz IMHn. Nire zaletasunak dira autoak, motoak eta motorrarekin zerikusia duen guztia.

Zergatik IMHn?

IMHn ikastea erabaki nuen oso ondo hitz egin zidatelako bertako metodologiari eta baliabideei buruz. Azkenean, erreferentziak nituen, eta nahiz eta Ermukoa izan eta beste ikastetxe batzuk gertuago eduki, IMHri buruzko iritzi hobek jaso nituen.

Zein da zure iritzia orain arte IMHn eta dualean ikasi eta bizi izan duzun esperientziari buruz?

Sistema duala oso interesgarria iruditzen zait, enpresa ezberdinetan lan egiteko aukera eskaintzen duelako.

Esan ahal diguzu zein den IMHn ikasten pasatako garaitik gehien gustatu zaizuna?

IMHk lagunak egiteko atak irekitzen dizkizu, irakasleak oso onak dira eta zurekin asko enpatizatzen dute, edozein gauzatan laguntzeko prest daude.

Zer asmo duzu datorren urterako?

Datorren urtean, DUALa egiten ari naizen enpresan geratu nahiko nuke, Perihortzen. Oso pozik nago lankideekin, nagusiarekin eta lan egiteko erabiltzen duten metodologiaren inguruan.

Perihortz enpresari eskerrak eman nahi dizkiot, beraiekin lan egiteko aukera eman eta nola lan egiten duten erakusteagatik. Zoragarria lankideak!

Gradu hau ikastera animatuko zenuke norbait?

Bai, noski!

Zer esango zenioke zure moduko zikloak ikasteko zalantzan dagoen pertsona bati?

Dudak dituztenentzat, lasai egon daitezela, IMHn giro oso ona izango dutelako eta lagun asko egingo dituztelako.

IMHn ikasketak amaitzean ere, betiko lagunak izango dituzu edozein gauzatarako, eta irakasleak ere prest egongo dira etorkizun profesionalean laguntzeko.

Ikasteko erabiliko dituzun makinak oso onak dira, beste zentro batzuetan baino hobek.

Izen ematea

ATE IREKIAK

Maiatzak 14



IMH LHII Elgoibar
www.imh.eus
943 74 82 65
zikloak@imh.eus

Gaia: Saski-naski

Neure alaban seme

(Entzuteko: www.alboka.es)

drogetenitturri.eus

Neure alaban seme
illoba laztana,
ezizu ahaztu amamak
esaten dautsuna.
Lehelengo maitiena
geure Jaungoikua
eta haren hurrengo
Euskadi geure ama.



ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.drogetenitturri.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Alazne Aiestaran,
Eneritz Aranburu,
Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA

ETA MAKETAZIOA:

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Dorleta Vidal.

LAGUNTZAILEAK:

Ibaia Azagirre, Oier Beitia,
Ermua-Mallabia Oinarrizko Lanbide
Heziketa Udal Institutua, Kaltxango
AEK Euskaltegia, Nora Gastón,
Patxi López, Valentin Mugarza
eta Ainara Riveras.

ARGAZKIAK:

Alboka Musika Eskola, Maider
Arriaga, Amaia Beldarrain, Estibalitz
Durán, Estibalitz González, Gorka
Gonzalez, Aitor López, Garazi
Mugarza, Valentin Mugarza, Amaia
Orbe, Diego Quiroga Losada,
Roberto Ramos eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Aguirre, Manex Prieto
eta Alex Gonzalez.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogetenitturrik ez du bere gain
hartzen aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



ERMUKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Aitor López · Torre del Mar (Málaga)

“Andaluziak bere hiztegi propioa du, eta horren barruan probintzia eta herri bakoitzak berea”

Orain dela hemeretzi urte joan zen Málaga bizitzera Aitor López ermuarra, eta ordutik bertan dago, Torre del Mar herrian, hain zuzen.

Testua NAHIA RUIZ ALBIZURI

Zergatik joan zinen Málaga?

Oporretan etortzen ginen hasieran, bere momentuan *boom* handia egon zelako eta Eibarko eta Ermuko jende askok hemen erosi zuen etxea. Nire arreba batek Eibarko etxe batean egiten zuen lan, eta uda batean oporretan eraman zuten eurekin. Gerora gu ere hasi ginen oporretan hona etortzen, eta neska bat ezagutu nuen. Hasieran udako zerbait zen, baina luzatu egin zen denboran eta azkenean hona etorri nintzen bizitzera.

Orain dela zenbat joan zinen?

2006an etorri nintzen, 29 urte nituela. Jada 19 dara-

matzat hemen.

Badago hitzen bat bertan erabiltzen dutena eta hemen ez?

Andaluziak bere hiztegi propioa du, eta horren barruan probintzia bakoitzak berea. Herriz herri ere aldatu egiten da! Nire emazteak beti esaten dit dena *percadío* lez laga dudala, esaterako. Taladroari ere *guarrito* esaten diote, bazegoelako lehen Warrington deituriko marka bat, eta izen hori geratu zaio...

Nolakoa da zure egun libre bat?



ZUZENBIDE KONTUAK
 Lege eta kontu aholkularitza
 Izarra Centre eraikina
 Tel: 846080080
 Mugikorra: 688885435
 zuzenbidekontuak@gmail.com

JULEN




JULEN IZARRA GARRAIOAK

**Bidegain kalea 1
 48240 BERRIZ
 636 958 339**

AMAIA HARATEGIA



Bertoko Okelak
 Probaleku 5
 Tfnoa. 943 17 05 84
 Ermua



IKASTOLA
 1968tik Ermua euskalduntzen



Nola azaldu! Etxetik ehun metrotara hondartza daukat. Normalean txakurtxoarekin paseoa iriteten naiz, kaña batzuk hartu, tapeoa... eguzkitan egiten diren ekintzak! Horretaz gain, Eibar futbol taldeak, Barakaldok edota Realak jokatzeko badute, haien partiduetan ikusten ditut. Eibar nire taldea da, Barakaldon nire ilobak jokatzeko du eta Realak betiko taldea da. Nire emazteak beti esaten dit futbolak bakarrik dudala buruan!

Bertako eguraldia edo hemengoa nahiago duzu?

Asko gustatzen zait eguzkia eta beroa. Egia da ezin dela lorik egin 40 gradu daudenean, baina hala ere beroa nahiago dut. Emaztea eta biok urte erdiz egon ginen Ermuan bizitzen, eta lehenengo hamar egunak euritan igaro genituen... Eta emazteak eguzkia behar du. Gainera, hemen uraren inguruan kultura handia dago. Euri asko egiten ez duenez asko zaintzen dute, ez

"Jaiegunetan txakurtxoarekin paseoa iriteten naiz, kaña batzuk hartu, tapeoa..."

"Ezin da lorik egin 40 gradu daudenean, baina hala ere beroa nahiago dut"



da han bezala, etxean beti dugula ura... Urte batzuetan bost egunez bakarrik egin du euria. Hori bai, egunen batean euria indartsu botatzen badu, hurrengo egunean dena berde-berde egoten da.

Zein da bertako janari tipikoa?

Hemen badago plater bat *gaspachuelo* deitzen dena: ez du gazpatxoarekin zerikusirik, arrautza zopa bat da. Horrez gain, *pescaítoa* ere asko gustatzen zait. Bestalde, ez da okela askorik jaten, gehiena txerria eta oilaskoa izanik.

Faltan botatzen duzu Ermua?

Familia eta lagunak asko botatzen ditut faltan. Bizpahiru aldiz joaten naiz urtero eta gustuko dut haiek ikustea. Askotan, bertan nagoenean, Ermuan bizi nintzenean agurtzen ez ninduen jendeak agurtzen nau, eta harritu egiten naiz oraindik gogoratzen nautela ikustean. Gainera, orain dela gutxi Jon Aramendik aurkeztu duen "Reacción en Cadena" saioan egon ginen nire arrebetako bi eta ni, eta "los López de Ermua" izena jarri ziguten. Jendeak oso ondo egin genuela helarazi zigun, eta hori bihotzean eramaten da.

“Gure lanean ezinbestekoa da presio puntu bat izatea. Erne egon behar gara”

Amaia Orbe Barrio · Itzultzailea eta interpretea



Duela hamar urte inguru bukatu zuen Amaia Orbe (Ermua, 1994) Itzulpengintza eta Interpretazio Gradua, eta gaur egun esparru horretan egiten du lan, mota eta tamaina ezberdinetako enpresei zein instituzio publikoei zerbitzua emanez. Urte eta erdi darama Iruñean bizitzen.

Testua **DORLETA VIDAL**

Urte batzuk daramatzazu itzulpen eta interpretazio lanak burutzen. Nondik nora ibili zara azkenaldian?

Nire lana oso anitza da, eta egun batetik bestera aldatzen da: atzo Logroñon egon nintzen, gaur Iruñean ateratzen da: batzuetan Berrizera noa, Bilbora sarritan... Euskal Herritik mugitzen naiz. Hala ere, gero eta lan eta hitzaldi gehiago egiten dira urrutiko modalitatean, eta etxetik lan egiteko aukera daukat askotan. Osoko bilkuretan aritzen naiz, konferentziak itzultzen ditut, San Mameseko prentsaurrekoetan parte hartzen dut noizean behin, fabrika ezberdinetako auditorietan edota formakuntzetan jarduten dut... Itzulpenei dagokienez, azkenaldian Lanbide Heziketarako auto-mozioko materiala ingelesera itzuli dut.

Espainiako Kongresuak ere zuregana jotzen du interprete lanak egin ditzazun...

Duela urte eta erdi hasi ziren saioak itzultzen eta noiz-behinka deitzen didate. Urrutiko modalitatean aritzen naiz, Zoom aplikazioaren bitartez.

Askorentzat antzerako hitzak dira itzulpena eta interpretazioa. Zeintzuk dira bien arteko ezberdintasunak?

Itzulpenaz hitz egiten dugunean idatzizko lanaz hitz egiten dugu: testuak, liburuak, legeak... Interpretazioa itzulpenaren modalitate bat da, ahozkoari lotuta dagoena. Azken hau aldeberekoa izan daiteke edo esan

ostekoa, nolabait esateko. Interpretazio lanak ez dira egunero suertatzen eta askotan lan horiek itzulpenekin uztartu behar dituzu, behintzat autonomo lan egiten baduzu, nik bezala.

Zein gaitasun behar dira horietako alor bakoitzean egoki jarduteko?

Bi diziplinek hizkuntza-gaitasun sendoak eskatzen dituzte, baina lan-dinamika eta erritmoa oso ezberdinak dira. Itzulketan hizkuntzaren idatzizko moldeei dagokien guztia menderatu behar duzu: gramatika, estiloko arauak... Interpretazioan ere, baina ez hain modu zorrotzean, agian. Lana askoz ere biziagoa da eta ahozko kodeek baldintzatzen dute jarduna. Horretan lan egiten dugunok estres puntu batekin gozaten dugu. Gainera, aldibereko interpretazioetan ezin dizkiozu buelta asko eman emaitzari, eta horrekin ez sufritzen ikasi behar duzu. Bestalde, itzultzaileak denboraz baliatzen dira testua fintzeko; interpreteek, aldiz, unean bertan hartu behar izaten dituzte erabakiak, eta horrek beste trebetasun batzuk eskatzen ditu: arreta bizia, malgutasuna eta egoera azkar eta presiopean kudeatzeko gaitasuna.

Itzulpena edo interpretazioa. Zein nahiago duzu zuk?

Lan biak uztartzea gustatzen zait, baina ezingo nuke zortzi ordu egun testuak itzultzen. Nahiko lan bakartia



Amaia Orbe: "Esango nuke lasaitasuna transmititzeko gaitasuna daukadala". Arg.: Amaia Beldarrain, TAZEBAEZ koop.

da, eta niri jendearekin harremanetan egotea gustatzen zait. Gainera, esango nuke ez dela nire indargunea idatzizkoak hainbeste fintzea...

Zeintzuk dira zure trebetasunak, bada?

Esango nuke lasaitasuna transmititzeko gaitasuna daukadala. Ahots eta erritmo pausatua daukat, eta estres egoeretan eutsi egiten diot. Horrez gain, nire ezaugarrietako bat bada ere jakin-mina eta gaurkotasuneko gaietan jantzita egotea.

Entzun eta aldi berean hitz egin: ez dirudi lan erraza...

Ez, hori da aldibereko interpretazioaren alderik zailena: aldi berean egin behar duzu burmuinarentzat batere naturala ez den prozesua: soinu seinalea jaso, deskodetu, ulertu eta momentuan bertan itzuli, altuan esan eta zure mezua entzun, ulergarria dela ziurtatzeko. Ezinbestekoak dira praktika eta aurreko prestaketa. Hizlaria nor izango den baldin badakizu, bere hitz egiteko tonua zein den, azentua edo euskalkia duen... etxeko lan batzuk aurreratu ditzakezu. Eta aurrea hartu ahal badiozu esango duenari, edo landuko duen gaiari, zeure buruari lana erraztuko diozu.

Horrelako lanetan presioa sentitzen duzu oraindik ere?

Ezinbestekoa da adrenalina eta presio puntu bat izatea, erne egon behar garelako. Arazoa da presio hori zure burua boikot egiterainoko puntura heltzen denean...

Interpretazioaren munduan, zer nolako garrantzia ematen zaio ahots argia eta atsegina izateari?

Ahotsa gure lan erreminta da eta zaintzen dugu, jakina, baina atsegina izan edo ez, gustu kontua da.

Zer dela-eta aukeratu zenituen itzultzaile eta interprete ikasketak?

Uste dut erabaki horren arrazoia izan zela hizkuntzak maite nituela, hizkuntzak ikastea, alegia. Txiki-txikitik ingeleseko klaseetara joaten nintzen, eskolan frantsesa aukeratu nuen ahal bezain laster, eta gustuko nituen jada erabiltzen ez diren hizkuntzak ere, latina eta grekoa, kasurako. Hobbya zen. Uste dut horren eragina izan zela etxe elebidun batean hezte, Ermuan oso ohikoa den bezala. Aita ermuarra da, eta berarekin eta nebarekin euskaraz hitz egiten nuen, eta amarekin gaztelaniaz; bi hizkuntzen artean bizi




izan naiz betidanik. Horri gehitu zitzaion senide baten bitartez izan nuela ikasketen berri, bere garaian ez zirelako oso ezagunak.

Zer lantzen da Gradu horretan? Hizkuntzak ere ikasten dira?

Hizkuntzalaritza, terminologia, itzulpengintzaren teoria eta historia, eta ikerketarako oinarriak, besteak beste; bestalde, ahozketasuna eta idazmena hobetzeko ikasgaiak daude, itzulpen praktikak egiten dira... Hizkuntzei dagokienez, Gradua egin ahal izateko, sarrera proba bat gainditu behar duzu, maila jakin bat izan behar duzulako euskarari, gaztelanian eta ingelesean, EHUren kasuan. Gero, badago beste hizkuntza batzuk zerotik ikasteko aukera, eta nik alemana aukeratu nuen. Gerora arabiera eta kurduera ere ikasten hasi nintzen.

Zein hizkuntza menderatzen dituzu?

Hizkuntzekin lan egiten dugunez, sailkapen bat erabiltzen dugu guk, interpretazioari begira batez ere, eta A, B eta C multzotan sailkatzen ditugu. A taldekoak ama hizkuntzak edo ama hizkuntza mailan menderatzen dituzunak dira. Nire kasuan euskara eta gaztelania. B multzokoak dira aldibereko zubi lana egiteko modukoak, eta hor ingelesa jarriko nuke. Eta azkenik, C



multzoan, alemana eta frantsesa ipiniko nituzke. Egia da ere hizkuntza bat ezin dela inoiz %100ean menderatu, hamaika adar dituztelako, eta etengabeko formakuntza eskatzen dute. Bestalde, zeinu hizkuntza ikasi nuen ere urte luzez.

Alemanian bizitzen egon zinen...

Bai, ikasketak bukatutakoan irakaskuntza masterra egin nuen eta horrek eman zidan aukera Etxepare Euskal Institutuak dituen irakaskuntza programetan parte hartzeko. Horren baitan bi urte eman nituen Berlinen, lanean eta alemana ikastean, eta beste bi urte Leipzigen, euskarazko irakaskuntzan eta hizkuntzalaritzan zentratuta. Bi fase horien artean, pandemia garaian, espezializaziora jo nuen eta interpretazio masterra egin nuen La Lagunan (Tenerife). Orduak eta orduak eman nituen interpretazio lanak egiten, eskarmentu handia lortuz

Uste duzu adimen artifizialak eta berehalako itzulpenak egiten dituzten aplikazioek eragina daukatela edo izango dutela zure lanean?

Inozoa litzateke ezetz esatea! Egia da teknologiak eragin handia izan duela itzulpenean eta interpretazioan: lehen hiztegi batekin egiten zen lan, ez zegoen tresnarik berehalako interpretazioak egiteko... Teknologiarik esker ofizioa hobetu da, eta profesional gisa teknologia horiekin elkarbizitzen ikasi behar dugu. Bestalde ez dut sinisten makinak guk egiten dugun lan guztia egiteko gai izango direnik, eta haiengandik bereizten gaituzten ezaugarriak bistaraten ikasi behar dugu (lasaitasuna eta konfiantza transmititzea, naturaltasuna...). Ezin da komunikazioa utzi makina horien atzean dauden enpresen interesen esku.



Amaia lanean 2024ko irailean egin zen "Zaintza publiko-komunitarioen erronka" hitzaldian, Gasteizen.

Etorkizunera begira, nola ikusten duzu zeure burua? Beste lan esparru batzuk probatu nahiko zenituzke?

Momentuz nire asmoa da formatzen jarraitzea: bai hizkuntzak menderatzeari dagokionez, bai landu daitezkeen gaiei dagokienez ez dagoelako amaierarik. Bestalde, mundu honetan gabiltzanon artean sare gero eta sendoa sortzea nahiko nuke, lan nahiko baktaria izan daitekeelako. Gero, zergatik ez? Gustatuko litzaidake Europar Batasunean edo Nazio Batuetan aritzea, baina ez da nire helburua: gustura nago herri txiki bateko asanblada batean edo enpresa baten galdara gelan interprete.





Zatoz ate irekietara!

MAIATZAK 6



**AUKERARIK
ONENA,
ETORKIZUNA
DUENA**

Josepa Narbaiza, goizean goizeko iratzargailua

Bizi zela 150 urtetik gora diren arren, deigarria da zenbatek duten oraindik bere entzutea. Josepa Goti auzokide eta senide askok gogoratzen dute, emakume berezia zelako, irrintzi indartsuak botatzen zituelako... Hurrengo lerroetan han-hemenka jasotakoak ezagutu zutenen zein haren gainekoak entzun dituztenen ahotik.

Testua **ESTIBALITZ GONZÁLEZ**

Argazkiak **DIEGO QUIROGA LOSADA, SANTA MARIA DEL VILLARREKO IX. MARKESA**

Zengoittek Bengoan erakutsi zidaten antzinako argazki hartan igitai batekin garia ebakitzen ageri zen edadeko emakume hura deigarria egin zitzaidan, ehunazko alkandora zuri-zuria zakuekin egindako amantal zaharkitu batekin estaltzen zuena. Josepa Goti zela, Zengoittek Goiti baserrikoa, baina Berrizen bizi izan zituela bere azkenengo urteak. Haritxo fina zen, baina jakin-min ez zuten gogoratzen inork, Goti eta Goti besterik ez. Galdetu hemen eta galdetu han, urruneko senide batzuegana iritsi nintzen: Narbaiza Bilbao. Jaiotza, oster, ez zen ageri Mallabian; elizaz Zengoitte izanda Berrizen agian? Bertan. 1867an jaioa. Domingo eta Rufina gurasoak. Irrintzilaria zela esan zidatenean, jakingurak bultzatuta, bere ingurumarian galdetzeari ekin nion.

Zengoitte auzoko Ganekoetxe edo Aldapa baserriko Patxi Aldapek ez zuen ezagutu, baina euren aitari entzunda zion Josepa Goti "auzoko reboltosie" zela. Uxarte baserriko Julian Bilbao, oster, mutikotan ezagutu zuen. "Zengoittek ermittan, domekan-domekan, arratsalde erdi-



Etxe barreneko soloan, Josefa eta Paulo loba. 1942.

"Zengoitte osue esnatzeko besteko irrintzie botatzen eban"

"Gañera zelebren bat zan: gustau eitten jakon guri mutikuoï adarra jotie, begixek itxi ta lo plantak ein"

xen errosarixue egoten zan eta bera zan dei-kanpaiek joteko ardurie ekana. Gañera zelebren bat zan: gustau eitten jakon guri mutikuoï adarra jotie, begixek itxi ta lo plantak ein. Guk alkarri 'Hi, lo eitten xok gañera, kanpaie jotien ta lo!'. Lo ez, izarrik, aprapos itxi begixek guri barre eraitteko!", gogoratzen du irribarrets.

"Etartien egur txikitzen eitten eban gogor, ziritxo bat eta mazotxo bat eta tak-tak-tak, egur txikitzen! Andra gogorra zan, gogorra! Baina gurera etortzen zanian ez zan kontu kontaldi bat ein barik juten", gehitzen digu. Barre algara itzelak egiten omen zituen "harek ahiztak uzkar bat sentidu ezker, orduetarako barriek ekezen", Julianen esanez. Zengoitte Beittiko Maria Agirrebeitiak ere "gari-ebaten, egurre txikitzen eta ortuen biherrien", gogoratzen du. Andre gogorra zela dio Cecilio anaiak ere.

Esnatu behar

Gotin bera baino bi urte zaharragoa zen Maria ahiz-



Zengoitte auzoan, Goitia baserria.

parekin, honen senar Agustin Agirrebeitiarekin eta bikotearen aldrarekin bizi izan zen Josepa. Irrintziak botatzen trebea zen diotenez. "Akordaten jakonien" Julianen gomutaz, "baliente dauela-edo holako asuntoren bat erakutsi guran-edo" ijui itzelak botatzen zituen. Goizetan oilarrak jo orduko ijui luze batekin egunari diosala egitea gustatzen zitzaion Josepari "persona danak ez dabez luziek eitten, baina Josepanak luziek zien beti", Julianek dioskunez. "Erlojuik ez euen eta oilarraz ibiltzen zien, eta oilarroï zuzena izen biharko zan, bestela okerreko orduetan esnatuko zittun danok".

Lastoarekin argia

Zengoittekoak mezetara betidanik Berrizera joateko joera izan dute eta elizarekin kunplitzeko eguneroko eginbeharretakoa izaten zen. Goizeko 6:30ean Be-

Trastelekuak partikularrentzat



Biltegiak enpresentzat

Gipuzkoa etorbidea 19 · Ermua
621 325 477 / info@lekubox.com
www.lekubox.com



Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

DG
Horacio Decoración
TAPICERÍA - ALTZARIAK - OSAGARRIAK



VI Centenario 10 · Ermua
943 03 15 80 / 688 61 06 38
www.dghoraciodecoracion.com



"Etartien egur txikitzen eitten eban gogor, ziritxo bat eta mazotxo bat eta tak-tak-tak, egur txikitzen!"

"Gure aittak sarritan esaten zuen harek ikasketak eduki bazituen, auskalo nora ailegatuko zen!"

rrizen egon behar izaten ziren eta Josepari auzokoak esnatzea gustatzen zitzaion. Inma Zendoia Agirrebeitia berriztarrak, Maria Narbaizaren lobak, bere amari entzunda zizkion "Zengoitte osue esnatzeko besteko irrintzie botatzen ebal, itzela! Sei txerdixetarako mezetara bajatzen zien Berriza eta inguru guztixek itzartzen ei ebazen. Amari entzunda zelan argixe eitteko hartu lastue eskuen, ixotu eta benga, jende-errebañuaz behera, Zengoittek jendiaz elizondora etorten zan. Horrek orduetan eta negue suertatzen zani, gaba izengo zan! Mezetara! Orduko fedie!"

Inmaren lehengusina den Mertxe Elordi Agirrebeitia elgoibartarrak ere ez zuen ezagutzerik izan, baina "Tia xahar" deitzen dio. Etxean entzun duenetik hitz egiten du, "langilea zen, zuhurra... eta gizonezkorik ikusterik, ezta pentsatu ere! Berak bere lana, bere ardurak... Emakume oso baliotsua zen, gogorra. Gure aittak sarritan esaten zuen harek ikasketak eduki bazituen, auskalo nora ailegatuko zen! Emakume aparta zela! Gurasoei etxean entzun izan diet sarri "Tia xaharra, ha zer zen!"

Eta dena ona beti, txarrik ezer ez", aipatzen du Mertxe. Honen ahizpa Jesusa zaldibartarrak "bihargiñe eta solterie" zela diosku. "Ez zan ezkondu ez zebalako gure izan. Tia xahar esaten geuntsen, baina urteik die hil zala. Harek Berrizera juañen gero" gehitzen



Gari-ebaten familian.1942.

digu. Irrintziak botatzen zituela ere entzunda zuten bi ahizpok eta Mertxeren esanetan horretan "zoragarria zen, famaia. Indar haundiz botatzen omen zituen".

1944 urtean Goti utzi eta Berrizera eraman zuen bizitzak, Etxaburu Aurrekoa baserrira. Han eliza ondoko leku jakin batera joaten zen irrintziok ganoraz egiteko, soinu hobeto entzuten zelako; umek bat botatzeko eskatzen ziotenean, gustura askoan egiten zuen. Mariaren familiarekin biziko zen, harik eta 1949ko abuztuaren 6an Etxabururantz bertan zendu zen. Soloan gari-ebateko lanetan ateratako argazki hori beti egon zen etxe hartako ezkaratzean, halan gogoratzen du Onandi baserriko Arantza Agirrebeitiak. "Aittittan izekue zan Josepa eta ointxe be akordaten naz: txapie holantzek eta argazkixoi ezkatzen". Beti etxekeon akorduan.

Bitxi-denda Tailor pcpico Etxe-denda

Senén
1978

Diseinuak eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zaharbidea 4 ERMUA (48240) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

AMALUR
FISIOTERAPIA

688 61 98 96
zeharkale 12 bajo
48260 ERMUA

IRENE ESQUÉ col 1666 EGOITZ FORMOSO col 1675

hanigan's
Irish Tavern

Gosari, bazkari eta afariak eramateko prestatzen dugu
Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburuetan 10:00etatik.

Komentukua z/g. 941010527

“Mallabiko Hika txuletie” prestatu du Zaparrada Elkartek

Mallabiak "Euskaraldia Hikan" ekimenean parte hartuko du, Euskal Herriko hainbat udalerrirekin batera. Ekimen honetara batu nahi diren herritarrek hala adierazi beharko dute Euskaraldian izena ematerakoan, eta txapa jasotzerakoan "H" pegatina jasoko dute, ahobizi edo belarriprest txapan itsasteko. Horrekin lotuta, "Mallabiko Hika txuletie" argitaratu berri du Zaparrada Elkartek.

Lagun bi alkarrekin hasarratu die eta, batetik bestie jotzen dau begixan onduen:
 - Hau ez dok holan geldittuko!
 - Ez, hori baltzittu ingo jak.

Mallabiko esaerak:


- Zelan hago?
- Aspaldi ez gaittun/gaittuk ikusi eta zelan habil?
- Ze ein bion/biok bixer?
- Ze ingojuau/ingojunau?
- Etxuat/Etxunat nahi.
- Etxukenat/Etxaukat gogoik gaur.
- Bajakixenat/ Bajakixat hori baina
- Edarra gozatue ezton/eztok?
- Oin fresko jan/jak baina berotu bijon/bijok.
- Eutsiko jutzenau/ jutzau.
- Eurixe jaton/jatok.
- Horion/Horiok suertie.
- Saiatuko gaittun/gaittuk.
- Egonari/egoai ixilik!
- Ze guron/gurok?
- Heuk nahidunana/nahiduana.
- Ze bion/biok? Ze nahion/nahiok?
- Junai/Juai etxa!
- Etorrikaz bazkaitten?
- Etorriñari/Etorriari hona.
- Emoiden/Emoiztek hori.
- Zetan habil?
- Haon/Haok arpeixe!
- Hi haz hi alpakiñe!
- Hartin /Hartik hortik!



Aditzak:

- Naiz> Non/Nok
- Zara> Haz
- Da> Don/Dok
- Gara> Gaittun /Gaittuk
- Dira> Dittun /Dittuk
- Nintzen> Nintzunan/Nintzuan
- Zinen > Hintzenan/Hintzan
- Zen> Zunan
- Ginen > Gintzunazen/Gintzuazen
- Ziren > Zittunan/Zittuan
- Dut> Juat/Junat
- Duzu> Don/Dok
- Du > Jon/jok
- Dugu> Junau /Juau
- Dute >Jue/Juek
- Nuen> Najunan/Najuan
- Zuen> Junan/Juan
- Genuen> Gendunan/genduan
- Zuten> Junen/juen





Mallegoitik Anbotoko Amillena, tontorra inguratzen duen laino-eraztuna.
Argazkilaria: Garazi Mugarza.





IZENA EMAN DUTEN ERMUKO ENTITATEAK

- Alboka Musika Eskola.
- Anaitasuna Ikastola
- Anaitasuna Jantokiko Langileak
- Artarra Mendi Taldea
- CEIP Ongarai HLHI
- CEIP San Lorenzo HLHI
- Drogetenitturri
- Ermua BHI
- Ermuko Berbalagun
- Ermuko Ernai
- Ermuko Gazte Asanblada
- Ermuko Kaltxango AEK euskaltegia
- Ermuko Udala
- Errotabarri Eskubaloi Elkartea
- Eskolabarri Ikastetxea
- Euskal Birusa Elkartea
- H2B Business Group S.C.P.
- Herga Taberna
- Ileasilviapelu
- Kukulaisi Euskaltzaleen Topagunea
- Manahmana Koop, E
- Monroe Lan Batzordea
- Nü Shu Gazte feministak
- Oinak podologia
- Osatu S. Coop. (Bexencardio)
- Quetzal
- San Pelayo Ikastetxea
- Taupa mugimendua
- Txindurri dantza eta txistu taldea

TXAPA BANAKETA

Maiatzaren 9an, 10ean eta 11n.

Patxi plazan.

Ostiral eta larunbatean

18:30etik 20:00etara eta igandean

12:30etik 14:00etara.

EGITARAUA

Egitarau osoa apirilaren 25ean aurkeztuko da, eta bertan ekintza hauek jasoko dira, besteak beste:

- Maiatzaren 16an, Urko argiztatu.
- Maiatzaren 23an, eskolen ekintzak.
- Maiatzaren 24an, herri bazkaria (tiketak apirilak 25etik aurrera salduko dira), erromeria Sukar taldearekin...



Ariketak iraungo duen 11 egunetan ulertzen duten guztiekin beti euskaraz egiteko prest dago. Gainera, lehen hitza euskaraz egingo du eta elkarrizketa elebidunetan euskarari eutsiko dio.

Nahi eta ahal duenean egingo du ulertzen dutenekin euskaraz. Dakitenei hitz egiteko eskatuko die uneoro, baina egoeraren arabera erabakiko du euskaraz noiz egin.

EMAN
IZENA!



“Nire indargunea begiak eta begiradak dira, eta haiekin jolasten dut beti”

Gorka Gonzalez • Muralista



Duela hogeitaz hamar urte hasi zen Gorka Gonzalez ermuarra muralak egiten eta azken urteotan ohikoa da herriko kaleetan eta eraikinetako hormetan bere lanak ikustea, dagoeneko zortzi mural egin baititu. Azkena, apirilaren 4an aurkeztu zen, Euskaraldiari lotuta, Zeharkalea kalearen amaieran.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zein da mural bat sortzeko prozesua?

Proposamena jasotzen dudanean, zirriborro pare bat prestatzen hasten naiz, eta horretarako gaiari hobeto egokitzen diren irudiak bilatzen ditut. Gustuko irudiak topatutakoan, ordenagailuan montajea egin, eskatzailearekin kontrastatu, eta hormara eramaten ditut gero. Nire indargunea begiak eta begiradak dira, eta horrekin jolasten dut beti.

Zenbat denbora eramaten dizu mural bakoitzak?

Asko aldatzen da tamainaren arabera eta elementuen eta atzearen arabera. Euskaraldiko muralak, esaterako, 10 x 3 metro ditu eta bizpahiru egunetan egin nuen. Askotan denbora gehiago ematen dut irudiak topatzen murala egiten baino...

Ze pintura mota erabiltzen duzu?

Esprai bereziak erabiltzen ditut, nahiko garestiak dira, baina hamaika tonu dituzte, mutur ezberdinak, ekologikoak dira... aldea nabaritzen da.

Zenbat kolore erabili dituzu Euskaraldiko murala



egiteko?

Lau gris tonu ezberdin, hiru laranja eta hiru berde mota. 15-20 pote inguru erabili ditut.

Aurrera begira zein asmo?

Maiatzean 20 metroko luzera duen murala egingo dut Udalaren enkarguz, eta horrez gain muralen ibilbide gidatua eskainiko dut laster.

Udabarria
bertsotan 2025

Bizkaiko Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea

ERMUA

Maiatzak 22

Lobiano kultur gunean, 18:30ean

Sarrerak: www.bertsosarrerak.eus

www.bertsosale.eus/bizkaia

A multzoa

- Ana Picallo Perez
- Garikoitz Sarriugarte Onaindia
- Iker Uriarte Urrutia
- Izaro Bilbao Arostegi
- Jon Martinez Beaskoetxea
- Peio Molinuevo Martin

Gai-emailea: Leire Garatxena Larrabe

Aniolatzailea:

Babesleak:

Laguntzailea:

Ermuarron ekarpena: ezinbesteko laguntza Kaikor herrian, Kenyan

Marianita Kongregazioko erlijiosoak 2009an heldu ziren Kaikorrera (Kenya) eta bertakoen garapenean laguntzeko hamaika proiektu burutu dituzte bertan. Tartean, Ermuko Udalaren babesa jaso dute 2020tik, Euskal Elizbarrutietako Misioen bitartez, eta aurren ere ermuarrek 10.000 euro bidaliko dituzte bertara, proiektu ezberdinak egiteko helburuarekin.

Testua **DORLETA VIDAL**

Kenyako ipar-mendebaldean dago Kaikor, Turkana distrituan. Afrikako lekurik be-roenetakoa, lehorrenetakoa eta behar-tsuenetakoa da, eta gertuen dagoen herria Lodwar da, 260 kilometrotara; Nairobi hiriburua, aldiz, 1.000 kilometrotara dago. 5.000 pertsona inguru bizi dira bertan, nomadak dira, eta ahuntzen artzaintza praktikatzan dute gehienbat. Gainera, duela urte gutxi-ra arte, ez zeukaten ezer ereiteko aukerarik, ur eskasia dela-eta. Hango errealitatea 2009tik hasi zen aldatzen, Marianita erlijiosoak bertara heldu zirenetik, alegia.

Bertan emandako urteetan, Marianita Kongregazioak hango herritarren bizi-baldintzak hobetzeko proiektu ezberdinak garatu ditu, batez ere emakumeei, umeei eta pertsona nagusiei zuzenduta: haur-tzaindegiak eta ospitale zerbitzu mugikorra, besteak beste. Halaber, hainbat putzu eraiki eta horien inguruan ortuak prestatu dituzte. Zeregin guzti hauetan Euskal Elizbarrutietako Misioen laguntza jaso dute 2018tik, hala nola Ermuko Udalarena, 2020an batu baitzen proiektu honetara. Aurren ere, martxoan iragarri zuen bezala, 10.000 euro bidaliko ditu Udalak bertara, proiektuak bere bidea jarraitu dezan.

Lan lerroak

Ermuko parrokia-komunitateko kideen esanetan, misio honek bost lerro ditu. Lehenengoa emakumearen ahalduntzea da. Arlo horretan, emakumeak gizarte



duen papera indartzen da, eta erremintak eta aukerak ematen zaizkio erabakiak hartu ahal izateko eta diru sarrerak lortu ahal izateko, eskulanean tailerretan parte hartuz (bitxigintzarekin eta joskintzarekin lotutakoak) eta ekintzailetasuna bultzatuz: emakumeek hainbat denda zabaltu dituzte azken urteotan eta haietako batek errota bat jarri du martxan.

Bigarren helburua umeen osasuna hobetzea da. Esparru horretan berebiziko garrantzia dauka misio-lariek daukaten klinika zerbitzu mugikorrak. Bertan txertoak jartzen dira, haurdun dauden emakumeak zaindu eta eriak artatu, besteak beste. Ezinbestekoak dira baita ere eraiki dituzten ama-haurrentzako ha-

"Ortuek erruz ematen dituzte sandiak, hala nola kuiak eta tipulak"

mabi zentroak. "Azpimarratzekoa da horietatik zazpik Ermuko Udalaren dirulaguntza jaso dutela —azaldu dute parrokia-komunitateko kideek—. Bertan 900 ume batzen dira eta haien elikadura, heziketa eta osasuna bermatzen da".

Hirugarren lan ildoak garapen ekonomikoari dago lotuta, eta ortu komunitarioen bitartez gauzatzen da, elikadura ziurtatzen dutenak. Babarrunak landatzen dituzte batez ere eta arroza, artoa eta *porish* deitutako ahia modukoa jaten dute. "Ortuek erruz ematen dituzte sandiak, hala nola kuiak eta tipulak —azaldu dute Ermuko parrokiako arduradunek— eta azken urteotan oiloak ere badituzte".

Laugarren helburuak garapen iraunkorarekin dauka lotura eta helburu hori bermatzeko nekazaritzaren arloan egiten diren jarduerak zaintzen dira, oinarriko azpiegiturak eraikitzen dira (tartean putzuak eta urtegiak), eta eguzki-panelak jartzen dira.

Lana nagusiekin

Azkenik, bosgarren lerroa, umeen heziketari begira dago baita ere, Lehen Hezkuntzako eskola bat sortu baita, gazteei prestakuntza aukerak eskaini ahal izateko. "Aipatzekoa da bertako gurasoen ikuspuntua aldatzen ari dela, eta gaur egun ez dituztela seme-alabak



eskolara eramaten bertan gosaltzeko eta bazkaltzeko. Gaur egun etorkizunerako aukera bezala ikusten dute, eta hasi dira diru kopuru txiki bat ordaintzen umeek bertan ikasi dezaten", azaldu du parrokiako kidea den Esti Durán ermuarrak.

Misiolariak lan berezia burutzen dute pertsona nagusiekin ere, Turkanako gizartearen barruan haiek di-relako ahulenak eta egoera zaurgarrienean daudenak. "Bertako bizi esperantza oso baxua da, 40-45 urte, eta Marianitak elikagaiak eta osasun-arreta eskaintzen saiatzen dira", esan du Duránek.

Esti Durán 2018an egon zen Kaikorren hilabetez, eta bere esanetan, bertan bizitzea oso gogorra da, baldintzak muturrekoak baitira. Laguntzera doazenak ere zailtasunak izan dezakete hizkuntzarekin, han swahiliz eta turkanoz hitz egiten delako, eta gutxi batzuk dakitelako ingelesa, "hala ere, azkenean haiekin elkar ulertzea eta aurrera egitea lortzen da", azaldu du.




KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOAK
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89



OSTEOPATIA
Pablo Lucena

617 680 156
info@osteopatialucena.com
Probaleku 5 - Ermua (Bizkaia)



HARATEGIA - URDAITEGIA
MIGUEL
BERTAKO OKELAK
ETXEAN EGINDAKO TXORIZO TXISTORAK ODOLOSTE ETRA KROKETAK
PROBLEKU 3 - 943 170563 ERMUA



Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 - Ermua
Hitzordua: 688 85 18 95

“Momentue bizitzie eta gozatzie da nire helburue”

Eñaut Bilbao Arriaga · Mallabittar txirrindulari gaztie



Mallabiko Jubiletxien elkartu gara Eñaut eta bere ama Maiderrekin. Kasualidadie, telebistan Itzulia Basque Countryren lehenengo etapan Ferminen eta Xabierrek Gasteiztik txirrindularixen barri emoten diherdue. Astelehena da gaur eta hamasei urteko Eñaut biherrak eindre etorri dala dinosku amak; eskolara juen, etxera bueltan bazkaldu, entrenatu, zeozer jan eta etorri da Drogetenitturriko elkarriketatxue egittera.

Testua **ENERITZ ARANBURU**

Noz hasi zinen txirrindulari jantzi eta karrerak korritzen, Eñaut?

Eñaut: Lau urte die, Berrizko eskolan hasi nitzenien Zaldibarko taldien apuntatu nitzen Berrizko lagun batekin. Orain Zornotzako taldien nabil, Junior kategorixian lehenengo urtien. Junior bi urte izeten dira eta gero hogetahiru urtez azpikuetara pasatuko naz. Maider: Ume umetatik eruen izen doguz Udane eta Eñaut mendire, eskalatza, bizikletan ibiltxera eta abar. Honek urte bi eukezala, egun baten ikesi eban bizikleta gainien ibiltxen.

Zornotzako taldiaz gain, Espāñako selekzinuen be ibili zara

Eñaut: Martxuen deitxu eustien eta Alicanten korritu nitxun erlojuz kontrakue eta karrerie, zapatuen eta domekan.

Maider: Espāñako selekzinoko seiren artien berau izen zan onduen ibili zana.

Zertan defendatzen zara onduen, sprinien, eskalatzen...?

Eñaut: Igoten igoten, eskalatzaillie naz, gehixago gusatzzen jata. Ohittute be banago Mallabiko aldapekin, hemen danien dago aldapie.

Non entrenatzen dozu eta norekin?

Eñaut: Normalien Durangaldien, Berriz, Elorrio, Miotat aldetik. Beti elkartzen gara batzuk, taldien berriz-



tarrak, ondarrutarrak, markinarrak, zornotzar bat... gauz, hamaika guztire. Atzo adibidez Aguraineraino juen ginen, lau orduko bueltie egin gendun. 100 kilometro inguru.

Maidar: Nik esaten deuteset idatzeko nundik dabilen. Ondo konpontzen die kaminuen baina arriskue beti dago eta ardurie, ardurie da. Hori bai, ez jako esan biher "benga Eñaut, gaur entrenatu egin biher dozu". Hartu bizikletie eta "banoie" esaten dau, oso gustora dabil. **Ze ziklista dozu gustoko, gaur egungue eta lehenagokue?**

Eñaut: Ba Pogacar oin momentuen eta lehenagokue Indurain esango neuke.

Eta ze plan etorkizunera begire?

Eñaut: Oin txirrindularitzan, momentue bizitzie eta gozatzie nahi dot. Ikesten be jarraitzen dot, elektromekanikako lehenengo mailan nago Markinen eta datorren urtien bigarren maila egingo dot. Hamasei urte daukaz ondiño eta gero ikesten jarraitzie nahi neuke. Txirrindularitzan astiro-astiro gorutz eitxie da nire asmue, ahal doten neurrixen. Neure burue gainditzin juetie nahi neuke ahal bada behintzet.

Maidar: Oso ondo dabil, eskolan be gustora eta bizikletan zer esanik bez. Lehenguen Antzuolan irabazle izen zan, Zornotzan zortzigarren amaittu eban... astiro-astiro badoie bere bidie eginez.

Lagunekin parrandan urtetzen zara?

Eñaut: Ez, bapez bapez. Lagunek gainera, danok gara txirrindulariek. Bizikletian mundu honetan jente asko ezagutu dot, lagunek, familiak, leku asko be bai. Ez dot parrandie faltan botaten.

Maidar: Hau lotixe da. Inoz urten dau parrandan baina gero biharamunien entrenatzera jueteko komerixak! Gainera karrera asko eukitxen ditxu, asteburu batzutan libre eukitxen dau eta deskantsatu be ein

"Neguen ziklokrossa egitten dot. Politxaue da, neketsuaue be bai, inder aldetik exijentiaue da"



Eñaut Bilbao. Argazkiak: Maider Arriaga.

biher izeten da.

Deskantsue neguen ba, ezta?

Eñaut: Neguen ziklokrossa egitten dot, jajaja. Taldeko danok ez dogu egitten baina batzuk bai. Politxaue da, neketsuaue be bai, inder aldetik exijentiaue da. Leku batzutan bizikletie lepuen hartzie toketan da, eskailerak... baina asko gustatzen jata. Txarrena basaztute amaitzen dogule goraino, kriston kakatziatz.

Maidar: Ikusteko be politxague da, zirkuituen dalako eta bueltaka ibiltzen direlako. Beste karreretan behin ikusten dozu eta gero helmugan, baina ziklokrossien gehixa disfrutatu zeinke. Baina, hori bai, kakatzie!! Txokolate bat...!

CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15

arrai
Luis Cañas
Amaren
Cair
Ehun
Txakoli Astobiza
Pazo Señarans
Cava Oriol Rossell
Cair
Casar de Burbia
Bodegas Valdemar
García de Olano
Manzanos Wines
Pernod Ricard Wines
Faustino García Martínez.
T.943176075
arrai@arrai97.com | Pol. Goitondo-Goiako, Parc.7 - Pob.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel.
943170542

Albokako Bandak eta Korrontzik kontzertua eskainiko dute maiatzean

Alboka Musika Eskolako Bandak kontzertua eskainiko du maiatzaren 9an Korrontzi folk taldearekin batera, 20:30ean hasita, Ermua Antzokian. Guztira 13 kan-
tu eskainiko dituzte elkarrekin eta haiek prestatzeko azaroaren bukaera hasi ziren entseatzen Albokako kideak. Azken entsegua apirilaren 2an egin zuten, abestien moldaketak egin dituen Xabier Zabala musikariarekin batera, eta hurrengoa apirilaren 30ean izango da.



Guztira ia 30 musikari igoko dira eszenatokira maiatzean (ikasleak, irakasleak eta irakasle ohiak barne), Korrontzi taldearen lau kideekin batera.

Albokako Bandak bi urtetik

behin egi-
ten ditu ko-
laborazioak
abeslari eta
talde ezagu-
nekin, eta
2023an So-
rotan Bele-
ren ondoan
aritu zen,
2021ean
Serafin Zu-
birirekin jo-
zuen eta 2019an Celtas Cortosekin.



Alboka Musika Eskolako musikariak Xabier Zabalarekin batera, apirilaren 2an egindako entsegu orokorrean.

Emanaldia ikusi nahi dutenek 10 euroko sarrera ordaindu beharko dute, eta hauek salgai daude dagoneko Lobiano Kulturgunean (Goienkale kalean), tickets.kutxabank.es/#/eu/ atarian eta Kutxabankeko orotariko kutxazainetan.

Bukatu da Egunean Behineko 17. denboraldia

Urtarrilaren 27an hasi eta 10 astez martxan egon da Egunean Behin jokoaren 17. denboraldia, apirilaren 6ra arte, hain zuzen ere, eta hamar aste horietako bakoitzean sari bana zozkatu du Euskal Birusak bere taldeko kide guztien artean (40 euroko erosketa txakea Ermuko Merkataria eta Ostalarien saltokietan gastatzeko). Horrez gain, asteko lehen sailkatuari txartel bat eman dio, zozketa finalean parte hartu ahal izateko, eta laster burutuko du zozketa hori (saria: 200

euroko bonoa Nekaturren).

Euskal Birusak sortutako taldean 187 lagunek hartu dute parte denboraldi honetan, eta jokoaren sortzailea den CodeSyntax enpresaren arduradunek adierazi dutenez, guztira 55.000 parte-hartzaile egon dira 2025eko lehen edizio honetan. Maiatzean beste denboraldi bati ekingo zaio.



Arriskuan dauden espezieak kontserbatzeko putzua



Ermua-Mallabia OLHUIko ikasleekin elkarlanean, putzu bat sortu da, desagertzeko arriskuan dauden inguruko espezieentzako kontserbazio ingurune bat sortzeko helburuarekin: anfibioak, narrastiak, sorgin-orratzak eta deabruaren zalditxoak, besteak beste. Gainera, putzua eraikitzeak eta jarraian egindako ikerketa lanek balio izan dute ikasleengan ingurumen-kontzientzia sortzeko.



Baratze ekologikoa



Ermua-Mallabia OLHUIko ikasleek ortu ekologikoa eraiki dute institutuko sarreran, haien eta naturaren arteko lotura sortzeko helburuarekin. Proiektu honi esker, ikasleek errespetuzko harremanak sortuko dituzte ingurugiroarekin.





ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia



[arropa, bitxiak, opariak...]

www.quetzalmoda.com
Zubiaturre, 2 - 48260 ERMUA | 943170065



KARABIXA

KARABIXA KAFETEGIA

Egunero zabalik
08:30etik aurrera



zermik
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT

ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzailerik bidezko diseinu elektronikoa garatzen espezializatua dagoen ingeniaritza-enpresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com
Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12

Ramosen dendia



Novedades Ramos izenakin, Ignacio Ramos eta Anita Cuberok jarri eben 1956an Erdikokalian. *Paños y Sastrería Ramos* izena ipiñitxa Zubiarrera lekualdatu ziran gero eta azkenengo aldaketa kale bardinaren hasierara egin eben, Zubiaurre 2ra, gaur egunian Roberto semian kargu. Izarak, mantak, etxerako erropia, lanerakua, zelan ez jaixegunerakua eta ume-erropia be asko... oihal kontuetan danetik pixkat, herrixan danetik bihar zan-eta!





LEIRE MAYORA

PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua

☎ 943 17 47 44



LEIRE RASCO

BIZARTEGIA

ILEAPAINDEGIA

943 17 17 96

📷 @LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)





AINARA RIVERAS

Tradizioak tradizio

**"Naturaren
eztanda horren
aurrean, hala
ere, ospakizun
erlijioso ilun
dezente ere
ikustea tokatzen
zitzaigun"**

Aste Santua hemen da. Aurtan, seguru nago, askori luze egin zaizuela. Gabonak eta uda bitartean egunerokotasuna albo batera utzi eta atsedenerako egun batzuk hartzeko sasoi paregabea izaten da. Oporralditxo luzeagoa batzuentzat, motzagoa besteentzat, baina, ditugunontzat, eguna luzatuta, planak edo kapritxozko bidaiatxoaren bat egiteko ezin hobea.

Gu txikitan herrira joaten ginen beti. *Abuelo* eta *abuela* bisitatu eta, gari, azukre-erremolatxa eta patata soro amaigabeen berde ugariaren artean, bizikletarekin gora eta beheara ibiltzen ginen. Egunak luzatzen eta udaberria bere lehenengo kolore biziak eskaintzen hasita egoten zen.

Naturaren eztanda horren aurrean, hala ere, ospakizun erlijioso ilun dezente ere ikustea tokatzen zitzaigun: irudi erlijiosoak bizkarrean, oinutsik, buru estaliak. Jesusen heriotza eta berpizkundea ere, zeharka bazen ere, ospatu beharra izaten genuen. Gure harridurarako Ostiral Santuko menuan *abuelak* ez zuen okelarik prestatzen eta Pazko Domekan mezetara joaten ginen.

Badirudi, 325. urtean, Nizeako Kontzilioan onartutako sistemarengatik aldatzen dela urtero Pazkoa ospatzeko data. Udaberriko ekinokzioren ondorengo lehenengo ilargi betea eta astebeterako domekan ospatzen da. Martxoaren 22tik apirilaren 25erako tartean suerta daiteke eta, gauzak horrela, ilargi egutegiaren data zehatzaren arabera izaten da.

Penitentziaren ilunak eta Jesusen berpizkondeak eta udaberriaren ernaltzeak eta bizi berri baten itxaropenak bat egiten dute beste behin. Oraingoan ere kristau errituen datak bat datoz naturaren zikloen joan-etorriarekin.

Antzina gauari begira bizi ginen, denbora ilargi-hilak zehazten zuen. Erlijioak bere tradizioak gure orduko bizimodura egokitu eta, indarrarekin batera, zabaltzea eta gailentzea lortu zuen arren, Aste Santuak ilargiaren esanetara egoten jarraitzen du, antzinako gure arrasto intimoetako baten esanera, hain zuzen ere.

Kontsumismoaren tranpan, gaur egun ez ilargiak, ez nekazaritzak, ez erlijioak, gutxi samar axola zaizkigu behin gure jendarteak bizirauteko funtsezko izan zituen tradizio ez hain zahar eta egiturazko horiek. Tradizio hitzak belanaldi batek hurrengoari uzten diona esan nahi du. Horregatik, posible bada, garrantzitsua deritzot jasotakoari mimo handiagoz begiratzea eta noraeza betiko gailendu baino lehen, badaezpada.

Bakoitza erabakitzen duzuen moduan gozatu, deskantsatu eta, udaberriarekin batera eta ahaztu gabe, berpiztu eta sentitu berriro zareten indar etaernal daitekeen sormen amaigabe hori. Tradizioak tradizio funtsean hori baikara gu ere.

ANNA BATLLE

Oloten (Girona) jaioa duela 33 urte. Bera baino gazteagoa den ahizpa dauka. Farmaziako ikasketak egin zituen Bartzelonan, eta 2022ko abenduan Ermura bizitzera etorri zen, bertakoa du-eta mutil-laguna. Lau urte daramatza euskara ikasten, garrantzitsua iruditzen baitzaio lekuan lekuko hizkuntzan hitz egitea.

Testua **DORLETA VIDAL**

Zure haurtzaroan pentsatzean, zer datorkizu burura?

Denbora asko igaro nuen lagunekin jolasten kalean, eta gogoan daukat pinturara eta musika eskolara joaten nintzela: pianoa jotzen nuen. Pintura ere asko gustatzen zitzaidan, baina ez nintzen batere trebea...

Zer ikasi zenuen?

Farmazia ikasi nuen Bartzelonan, eta bukatutakoan Oloten hasi nintzen lanean. Gero, masterra egin nahi nuen, eta Bilbora etorri nintzen ikastera.

Zenbat denbora eman zenuen Bilbon?

Hiru urte, eta hango giroa asko gustatu zitzaidanez, hemen geratzea erabaki nuen pandemia ostean.

Ermura etorri zinen gero...

Bai, bikotekidea hemengoa da, eta abenduan hiru urte egingo ditut Ermuan bizitzen. Egia esan Bilbo gehiago gustatzen zitzaidan, baina oso gustura nago hemen ere.

Jaioterrira begiratzean, zer baiten falta igartzten duzu?

Familiarena, baina mugikorrarekin oso erraza da harremanetan egotea, eta egunero edo ia egunero amarekin edo amama-aititerek hitz egiten dut.

Sarritan bueltatzen zara Olotera?

Oporretan: Aste Santuan, udan eta Gabonetan.

Eta hangoak etorri zaizkizu bisitan?

Bai, senideak behin etorri ziren eta Ermua herri txikia iruditu zitzairen, zulo batean sartuta, baina gustatu zitzairen. Bi lagun ere etorri izan zaizkit bisitan.

Kostatu zitzaizun hemengo bizimodura moldatzea?

Hemengo eguraldia, esaterako, oso gogorra egin zitzaidan hasieran, baina jendeak oso ondo hartu nau, oso jatorrak dira, eta badaukat lagun taldetxoak ere.

Ermuko botika batean egiten duzu lan hona etorri zinenetik, baina zenbat urte daramatzazu farmaziaren munduan lan egiten?

Guztira lau urte, eta aurretik laborategi batean egiten nuen lan. Egia esan, lehen laborategiko lana nahiago nuen, ez zitzaidalako gustatzen jendearen aurrean lan egitea, baina gaur egun hori da nire lanaz gehien gustatzen zaidana. Bezero batzuekin konfiantzazko harremana sortzen da.

Eta guztien?



Ordutegiak.

Zenbat denbora daramazu euskara ikasten?

Lau urte eta erdi, Bilbon hasi nintzen, izan ere garrantzitsua iruditzen zait bizi zaren lekuan hitz egiten den hizkuntza ezagutzea. Orain ez dut ondo hitz egiten, baina espero dut egunen batean hobeto hitz egitea eta jendearekin euskaraz komunikatu ahal izatea.

Izena eman duzu Euskaraldian?

Bai, Belarriprest rola hartu dut.

Euskara ikasteaz gain, zer egiten duzu denbora librean?

Asteazkenean ez daukat beste ezer egiteko denborarik, baina asteburuetan jai daukadanean, inguruko herriak ezagutzera joaten naiz sarritan. Bilbo asko gustatzen zait, eta Lekeitio ezagutzeko daukat oraindik.

Bidaiazalea zara?

Bai, asko. Europako herrialde askotan egon naiz eta orain urrutia joan nahi dut. Iaz Japonian egon nintzen, eta aurreko Perura joango naiz mutil-lagunarekin.

Musika gustatzen zaizu?

Bai, denetik entzuten dut, irratia entzuten dudalako askotan, baina rocka gustatzen zait bereziki. Marea, esaterako, asko gustatzen zait.

Jatun ona zara?

Denetik jaten dut, baina gehien gustatzen zaidan janarietako bat sushia da. Pare bat bider egin dut etxean, baina ez da gauza bera...

Kozinatzea gustatzen zaizu?

Bai, denbora daukadanean, bai.

Egunero kale egin gabe egiten duzun hori...

Esnatzeko alarmak jotzen duenean, hamar minutu atzeratzen dut; berriro jotzen duenean, berriro hamar minutu atzeratu... Hirugarrenez jotzen duenean altxatzen naiz.

Eguneko zure momentua...

Arratsaldeko lana bukatu eta gero, etxera heldu eta bost-hamar minutu etzaten naiz sofán, lasai. Gero berriro martxan jartzen naiz.

Pazientzia daukazu?

Badaukat, baina gero eta gutxiago.

"Arratsaldeko lana bukatu eta gero, etxera heldu eta bost-hamar minutu etzaten naiz sofán, lasai"

"Gustatuko litzaidake egunen batean nire herrira bizitzera joatea. Agian erretiroa hartzean..."

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Ibiltzen joatea, aurrekoak oso motel joatea, eta aurreratzeko tarterik ez izatea, adibidez. Edo garraio publikoan joatea eta jendea musika entzuten joatea kaskorik gabe.

Eta barrea eragin?

Gauza askok, umore oneko pertsona naiz.

Puntuala zara?

Bai, eta gustatzen zait besteak ere puntualak izatea.

Elkarrizketa batean nahiago duzu entzun ala hitz egin?

Normalean, entzun.

Zure bizitzako egunik zoriontsuena?

Urtebetetzeak, esaterako.

Ondo moldatzen zara teknologia berrieekin?

Bai, gustuko ditut eta nahiko ondo moldatzen naiz.

Hartu duzun erabakirik zailena?

Etxetik urrun bizitzera joatea. Gogoia neukan, baina ondo pentsatuz gero, ez zen erabaki erraza izan.

Orokorrean, kostatzen zaizu erabakiak hartzea?

Gaiaren arabera. Gauza batzuk di-da batean erabakitzen ditut, eta beste gauza batzuei buelta asko ematen dizkiet.

Iraganera edo etorkizunera bidaiatuko zenuke?

Etorkizunera, agian, mundua eta gauzak nola diren ikusteko.

Berriro jaioko bazina, zerbait aldatuko zenuke?

Ez, boteprontoan ezetz esango nuke. Pozik nago egin-dakoarekin.

Nola ikusten duzu zure burua hemendik urte batzuetara?

Uste dut Ermuan bizitzen jarraituko dudala, baina egunen batean nire herrira itzuli nahiko nuke, bertan etxea erosi nuen-eta. Agian erretiroa hartzean...

Zure publizitatea

DROGETEN
ITTURRI

943 17 93 50
688 63 28 76
drogeten@gmail.com

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a tí

PADI Programa Ayuda Dental Infantil
943 17 04 04
info@clnicasanpelayo.com
San Pelayo zeharbidea 5 - ERMUA

SAGARDUI
poltsak

Zubiurre 20 - ERMUA - 943 170305

Enter
INFORMÁTICA

SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA

VI. Mendeurrena 19, beheak
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

solozabal
tabakoak

torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

LA FORJA KAFETEGIA

1949

E R M U A

Plazan, orduko Udaletxeko sarrera
parean erretratatu zituzten ezkerretik
eskumara Margarita Olañeta, Jesus
Arrizabalaga, M^a Luisa Gorosabel,
Agustin Izagirre, Pilar Bilbao, Moises
Gorosabel eta Mari Tere Izagirre.
Makurtuta, Ana Mari Izagirre.



1960

M A L L A B I A

Argazki hau 1960ko apirilaren 2an aterata dago Geriako eskola ondoan. Egun horretan Luis Antxiak lehen meza eman zuen abade egin ondoren. Argazkian berarekin agertzen dira: Candido Garitagoitia, Isidro basterretxea, Julian Zelaieta, Pedro Sarasua, Mari Tere Bilbao, Martzel Garitagoitia, Martin Sangroniz, Juan Antxia, Julian Gerenabarrena, Txomin Antxia, Pako Antxia, Pedro Madariaga, Pedro Longarte, Bittori Ostolaza, Arrate Gerrikabeitia, Maria Angeles Aldape, Maria Agirrebeitia, Maritxu Ibaibarriaga, Libe Larrinaga, Rosa Mari Arregi, Pilar Barruetabeña, Jose Ignacio Gerenabarrena, Carmen Gerrikabeitia, Carmelo ..., Daniel Antxia, Luis Alzibar eta Eloi Zelaieta.

Falta diren pertsonak ezagutzen badituzu, jar zaitez gurekin harremanetan drogeten@gmail.com helbidean.

IRAGARKI LABURRAK

LAN ESKAINTZAK

Odontologo orokorra behar da Ermuko hortz klinika baterako, astean jardun baterako edo birako. Bidali CVa niklinika@gmail.com helbidera.

LAN BILA

DBH eta Lehen Hezkuntzako matematikak, euskara eta beste ikasgaietako klaseak ematen ditut arratsalde. C1 ingelesa eta euskara. 688739358

Neska euskalduna eskaintzen da haurrak goizez zein arratsalde zaintzeko. Esperientzia eta magisteritza ikasketekin. 648625209.

Mutil langile eta arduratsuak bere burua eskaintzen du pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. Atsegina eta adikorra. 632 708 954.



Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara: drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Maiatzaren 21a**.



Apirilaren 12an Zorionak **Xabier** zure bigarren urtebetetzean amama eta aititeren partez. Asko maite zaitugu, polit hori!



Apirilaren 25ean Zorionak **Daniel** zure laugarren urtebetetzean, amama Marce eta aitite Joseren partez. Asko maite zaitugu.



Apirilaren 19an Zorionak **Ane!** 14 urte beteko dituzu!! Oso neska ona zara! Muxu handi bat etxeko guztion partez!



Apirilaren 27an Zorionak **Enara!** 10 urte beteko dituzu! Zorionak lagun eta familia guztiaren partez. Gure bizi-pozazara!



Apirilaren 3an Zorionak **Ibai!** 18 urte bete dituzu! Zorionak eta besarkada handi bat familia eta lagun guztion partez.



Maiatzaren 1ean Zorionak **Ane**, 10 urte!! Primeran pasatu eguna eta jarraitu zaren moduan izaten. Muxu handi bat etxekoen partez.



Apirilaren 12an Zorionak **Nahia!** 10 kandela zure pasteltxoan, zu bai neska handia! Gozatu zure egunaz, gure martxosa! Patxo bat, Oihanen partez bereziki!



- Akordeoia
- Gitarra
- Pianoa
- Biolina
- Gitarra elektrikoa
- Saxofoia
- Biolontxelo
- Gitarra baxua
- Trikitrixa
- Bonbardino
- Lengoia musika
- Tronboia
- Flauta
- Klarineta
- Tronpeta
- Kantua
- Panderoa
- Txistua
- Perkusioa

MUSIKA
ESKOLA

Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00
albokamusikaeskola@hotmail.com

**Infreñu
Taberna**



Kardenal Orbe plaz
943 174584
www.infretaberna.com



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454
sehiga.proteccionlaboral@gmail.com

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...
...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Asteartetik ostiralera
00-12:00 15:00-19:00
arunbata 8:30-13:00

943 170474



ileapaindegia
Silvia
peluqueria

688819336

ZINEA

3tik 5era
10etik 12ra
17tik 19ra
24tik 26ra
31tik 1era

Ermua Antzokian.
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

ZINE-KLUBA

Hilak 1
Hilak 8
Hilak 15
Hilak 22
Hilak 29

Ermua Antzokian. 20:30ean.
 Antolatzailea: Ermuko Udala.
 Laguntzailea: Mudo-dro-
 got cinematografo.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 4
Hilak 11
Hilak 18
Hilak 25
Ekainak 1

Ermua Antzokian. 17:00etan.
 Antolatzailea: Ermuko Udala.

MUSIKA

Hilak 9: Kontzertua. Korrontzi & Alboka Musika Eskolako Banda. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 10€. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Hilak 10: Vértigo Rock: PIL.T., Moonshine Wagon, The Clayton, Kokein, Ziraun, Swamp, Mikosis, Slide, Norbac eta Nemon. 12:30etik aurrera. Martxoak 8 plazan, Orbe Kardinalaren plazan eta herriguneko kaleetan. Antolatzailea: Vértigo Rock elkarteak.

ANTZERKIA

Hilak 16: "Ensayo general", Banarte Antzerki Tailerraren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Hilak 23: "75 puñaladas", Txintxaun Antzerki kolektiboaren eskutik. 20:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera: 8€. Antolatzailea: Ermuko Udala.

DANTZA

Hilak 9: Dantza erakustaldia, Taupada dantza eskolako ikasleen eskutik (Dantzaren Nazioarteko Eguna). 19:30ean. Orbe Kardinalaren plazan. Antolatzailea: Taupada Dantza Eskola.

ERAKUSKETA

Hilaren 11ra arte: Pintura erakusketa: Udal pintura eskolako ikasleen lanak. Lanegunetan 18:00etatik 20:00etara. Lobiano Kulturgunean. Antolatzailea: Udal Margo Eskola.

Hilaren 1etik 31ra: Pintura erakusketa: Mugartea taldearen lanak. Ermuko dendetako erakuslehoietan. Antolatzailea: Mugartea.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 10: Ipuin-kontaketa. 17:30ean. Lobiano Kulturgunean. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Hilak 11: Pintura tailerra. 11:00etatik 14:00etara. Orbe Kardinalaren plazan. Antolatzailea: Mugartea.

Hilak 31: Akanpada: jokoak, ipuin-kontaketak... 17:00etatik aurrera. San Pelaio plazan eta Kiroldegian. Antolatzailea: Ermuko Udala.

BESTELAKOAK

Hilak 3: Borrokan barrena eguna: hainbat ekitaldi. 12:00etatik aurrera. Orbe Kardinalaren plazan. Antolatzailea: Borrokan Barrena Kultur Elkarteak.

Hilaren 12tik 18ra: Galiziako Letreei buruzko Jardunaldiak: hainbat ekitaldi. Orbe Kardinalaren plazan eta Galiziako zentroan. Antolatzailea: Galiziako Kultur Zentrua.

Hilak 17: Olerkiaren erreztaldia, La Red Teatroaren eskutik. 18:00etan. Martxoaren 8a plazan. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Hilaren 23tik 25era: Euskalaldia: hainbat ekitaldi. Orbe Kardinalaren plazan. Antolatzailea: Euskalaldia.

Hilak 27: Bertso jaialdia. Ermuko ikasteetxetako ikasleak. 17:30ean. Ermua Antzokian. Sarrera dohainik. Antolatzailea: Ermuko Udala.

Hilaren 30 eta 31: Jaialdi afrikarra. Hainbat ekitaldi. Orbe Kardinalaren plazan. Antolatzailea: Udal kooperazio kontseilua.

Patxi López



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**

Otro Plan
como en casa
 Erreserbak: 644 340 754

Iberikoetan
 espezialistak

Mayte

VI Centenario 5 - ERMUA
 943 172 412

PRO
 arraindegia




**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**

Zubiaurre, 21
 943 17 16 96
 ERMUA

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA


Desde 1971
ITURGINTZA
GASA
BEROKUNTZA
ZORU ERRADIATZAILEA
AEROTERMIA

Erakusketa 943 17 15 56
Tallerra: 635 998 881
fontanerivalle@gmail.com
Golenkale z/g (15 zkiaren parean)
ERMUA

PERTSIANAK


ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa

- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak

Tallerra:
Zeamreko Buelta 2
943 17 66 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)

Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ITURGINTZA


24 orduko zerbitzua
ITURGINTZA
KONPONKETAK
GREMIO GUZTIAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81

ERROTULAZIOA


Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak

943 17 00 36
www.rotekrotulos.com

ROTEK
LED PANTAILAK

ITURGINTZA

ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA


PALACIOS SM

ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

San Pelayo 26 · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com

660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

ELEKTRIZITATEA


ELECTRICIDAD
BETA^{CB}
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA

- Proiektuak
- Instalazioak
- Erreformak

- Berokuntza
- Gaueko tarifa
- Erradiadore elektrikoak

Diputazioa 11, behea
ERMUA

943 17 65 25
656 70 23 60

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com



Udan ere euskaraz eroso

Veranea en euskera
cómodamente



EUSKALTEGIAK

Ikastaro trinkoak
Cursos intensivos
Etxe ondoan
Cerca de casa
Euskara ikasteko
Azterketak prestatzeko



FAMILIA BARNETEGIAK

Euskara ikasteko
Seme-alabekin
euskaraz aritzeko



2 ASTEKO BARNETEGIAK

Euskara-eskolak
Euskaraz bizitzeko
Azterketak prestatzeko



IBILTARIA

Euskal Herria
zeharkatu eta
15 egunez
euskaraz mintzatu



ONLINE IKASTAROK

A **BETETA** C2



PRAKTIKATU

Udan ere,
mintzalagunak
martxan; hurbildu
zure euskaltegira

UDAKO EUSKARA IKASTAROAK CURSOS DE EUSKERA EN VERANO

Informazio gehiago



673 200 100 / 946 464 000

www.aek.eus

KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

IKASTARO TRINKOAK: EKAINA | UZTAILA | IRAILA

Ekainaren 2tik uztailaren 1era (80 ordu). Batxilergoko 1. mailakoentzat

Izena emateko azken eguna: maiatzaren 26a

Goizez: 10:00etatik 14:00etara

Ekainaren 25etik uztailaren 22ra (80 ordu). Izena emateko azken eguna: ekainaren 18a

Goizez: 09:00etatik 13:00etara

Irailaren 2tik 29ra (80 ordu). Izena emateko azken eguna: uztailaren 22a

Goizez zein arratsaldez. **Azterketak URRIAN**

DIRUZ LAGUNDUAK

ADI!

25-26 ikasturterako aurrematrikula egiteko aukera
Maiatzaren 5etik ekainaren 30era

Zearkale 16, beheka 48260 Ermua

688 746 480 edo 607 623 961 · kaltxango@aek.eus